



Gradu Amaierako Lana

ESKLEROSI ANIZKOITZAREN DIAGNOSTIKO BATEK ERAGINDAKO ESTRESAREN ETA GAIKOTASUNAREN GARAPENAREN ARTEKO ERLAZIOA

Ikaslea: Ander Iriarte Sarria

Tutorea: Mainer Muñoz Culla
Psikologia Gradua UPV/EHU
2022-2023 ikasturtea

IV modalitatea: Ikerketa, garapen eta/edo berrikuntza proiektua



LABURDURAK

- (BB) Bataz bestekoa
- (CSI-SF) Aurre egiteko estrategien inbentarioa - formulario laburtua
- (EA) Esklerosi anizkoitza
- (EBV) Epstein-Barr birusa
- (ECTRIMS) Esklerosi Anizkoitzaren Europako Kongresua
- (EDSS) Desgaitasunaren Egoera Eskala Hedatua
- (ENE) Espainiako Neurologia Elkarte
- (GIEB) Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordea
- (HLA) Giza antigeno leukozitarioa
- (HPA) Hipotalamiko-pituitarario-adrenala
- (IBA) Ikerketa eta Berrikuntza Arduratsua
- (IES-R) Larritasun psikologikoa gertakarien inpaktu-eskala
- (MSIS-29) Esklerosi anizkoitzaren inpaktu-eskala
- (NSZ) Nerbio-sistema zentrala
- (PP) Primario Progresibo
- (PR) Progresibo Errepikaria
- (PSS) Hautemandako Estresa eskala
- (RIA) Erradioinmunosaio lehiakor teknika
- (RR) Errepikari-atzerakaria
- (SAM) Ardatz sinpatiko adrenomedularra
- (SP) Sekundario Progresiboa
- (S-W) Shapiro-Wilk



AURKIBIDEA

LABURPENA.....	3
GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUA	3
SARRERA TEORIKOA	4
HELBURUA	10
HIPOTESIAK	11
INTERES ZIENTIFIKOA	11
METODOLOGIA	13
DISEINUA	13
IKERKETAKO LAGINAREN HAUTAKETA	14
LAGINAREN DESKRIBAPENA	14
IKERKETAN NEURTUTAKO ALDAGAIK ETA ERABILITAKO INSTRUMENTUAK.....	15
PROZEDURA	19
KRONOGRAMA	20
ANALISI ESTATISTIKOAK.....	20
ASPEKTU ETIKOAK	21
IKERKETAN ESPERO DIREN EMAITZAK ETA MUGAK.....	21
EMAITZEN HEDAPENA	23
ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK	24
ERANSKINAK.....	31
I.ERANSKINA.....	31
II.ERANSKINA (euskarazko eredua)	32
III. ERANSKINA	33
IV. ERANSKINA	33
V. ERANSKINA.....	34
VI. ERANSKINA.....	40
VII. ERANSKINA (euskarazko eredua)	48



LABURPENA

Ikerketa honek Esklerosi Anizkoitza (EA) du oinarritzat. EAean ematen den estresa asko ikertutako konstruktuko psikologikoa da, eta pazienteen bizi-kalitatea aldatzeko arrazoi nagusietako bat da, depresioa eta desgaitasuna alde batera utzita. Hala ere, estresak sintoma konplexua izaten jarraitzen du, bere definizioa mugatzeko eta bere etiopatogenia ulertzeko zailtasunak daude eta. Gaixotasun honen inguruan gehien aipatzen den konstruktuko psikologikoetako bat da, EAren bilakaerarako garrantzi berezia baitu. Hala ere, ez da ikertu EA bezalako gaixotasun kroniko baten diagnostiko batek sortutako estresak nola eragin dezakeen gaixotasunaren garapenean. Hori guztia kontuan hartuta, proiektuaren helburu nagusia da EAren diagnostikoa jasotzeak, estresore moduan ulertua, gaixotasun horren garapen-mailan duen eragina aztertzea. Horretarako luzaroko-diseinu bat egingo da, eta, guztira, bost urte eta erdiko iraupena izango du. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzu Publikoan EAren diagnostikoa jasotako pazienteak izango dira ikerketan parte hartuko luketen pertsonak. Parte-hartzaile horien aldagai biologikoak, psikologikoak eta neurologikoak aztertuko dira, ikerketa-taldearen elkarlanari esker. Ikerketa honetan lortutako emaitzek etorkizuneko ikerketa-lerroetarako bidea emango dutela espero da eta, horrela EA duten pazienteen bizi-kalitatea hobetu ahal izango da.

HITZ GAKOAK: Esklerosi anizkoitza, estresa, diagnostikoa, gaixotasunaren garapena, aurre-egite estrategiak.

GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUA

Osasuna eta ongizatea (3.helburua): Lan honen helburua da esklerosi anizkoitzaren diagnostikoa jasotzeagatik sortutako estresaren eta gaixotasunaren garapenaren erlazioa aztertzea. Lortutako emaitzek arlo honen inguruko ezagutza handituko dute eta baliagarriak izango dira gaixotasunaren hasieran estresari aurre egiteko terapia espezifiko baten beharra aztertzeko eta garatzeko. Ondorioz, pazienteen ongizatea handitzeko aukera izango genuke etorkizun batean.



SARRERA TEORIKOA

Esklerosi Anizkoitza (EA) nerbio-sistema zentralaren (NSZ) gaixotasun desmielinizatzaile kronikoa da; hau da, neuronen axoietan dagoen mielinazko zorroa suntsitzen duen eritasuna da. Prozesu desmielinizatzaile horrek garuneko substantzia zurian eta grisean hanturazko lesioak sortzen ditu eta horiek jatorri autoimmunea izan dezakete. Desmielinizazio horren ondorioz, axoietan zehar hedatzen den nerbio-bulkaden transmisioa moteldu egiten da, pazientearengan desgaitasun fisikoa eraginez. Garun lesio horiek direla eta, EAk sintoma neurologiko ugari ditu, eta horien intentsitateak larritasun handiagoa du gaixotasunaren gertakari akutuetan. EAren ohiko sintoma neurologikoak hauek dira: sintoma motorrak, sintoma sentsorialak, sintoma bisualak, ahultasuna, mina, hesteetako sintomak, sintoma sexualak, oreka galtzea, sintoma orofazialak eta fonatorioak (Mateu, 2018).

Gaur egun, gaixotasun honek pertsona askori eragiten dio. Epidemiologiari dagokionez, EA NSZ-eko gaixotasun desmielinizatzaile ohikoena da, eta heldu gazteen artean desgaitasun ez-traumatikoen lehen kausa da gaur egun (Pérez et al., 2019). Zehazki, Espainiako Neurologia Elkartearen (ENE) datuen arabera (Pérez, 2022), esklerosi anizkoitzak 50.000 pertsonari baino gehiagori eragiten die Espainian momentu honetan eta 1.800 kasu berri diagnostikatzen dira urtero estatu-mailan. Gaixotasun horrek 700.000 pertsonari eragiten die Europan eta 2,5 milioi pertsonari mundu-mailan. EA ohikoagoa da emakumeengan, eta datu honek gora egin du urteekin, emakumeen eta gizonen arteko proportzioa 3:1 izanik gaur egun (Filippi et al., 2018). Ikerketa ugari egin ondoren, mundu mailan adostasuna dago EA hasteko adinari dagokionez; kasuen bi heren inguru 20 eta 40 urte bitartean hasten dira. Nahiz eta, EA motaren arabera; hau da, fenotipoaren arabera pazienteen batez besteko adina aldatu egin daiteke (Vázquez et al., 2021). Klasikoki, gaixotasunaren lau fenotipo kliniko bereizten dira, eta horien deskribapenak adituen adostasunez egin eta argitaratu ziren 1996an. Lau mota horiek honako hauek dira; errepikari-atzerakaria (RR, *remittente-recurrente*, *gazteleratik*), Primario Progresiboa (PP), Sekundario Progresiboa (SP) eta Progresibo Errepikaria (PR). Aipatu behar da, EAren pazienteen gehiengoa RR bariedade horrekin hasten dela (Lublin eta Reingold, 1996). Hasierako fenotipo sailkapen horiek birplanteatu ziren, eta 2013an horiek berrikusi ziren. Berrikuspen horrek onartzen du EAk hantura-osagai errepikari eta osagai neurodegeneratibo progresibo bat dituela. Sailkapen honetan bi fenotipo aldatzaile gehitzen



zaizkie; fenotipoak aktibo edo ez-aktibo egotea, agerraldiak dituzten edo ez adierazteko (Lublin et al., 2014).

Etiopatogeniari dagokionez, ez da guztiz ondo ezagutzen, baina eskala handiko populazio-ikerketek gaixotasunaren hainbat arrisku faktore deskribatu dituzte. Hiru talde nagusietan sailkatzen dira: ingurumen-faktoreak, faktore genetikoak eta faktore epigenetikoak. Badirudi faktore anitz eta konplexu horien interakzioak eragina duela gaixotasun honetan.

EAREN hasierari dagokionez, aurretik aipatutako sintoma neurologikoren baten agerpenarekin lotzen da; hau da, gaixotasuna agerraldi batekin hasten da, normalean. Agerraldia gertakari kliniko monofasiko gisa definitzen da, eta gertakari desmielinizatzaile inflamatorio bat islatzen du, gutxienez 24 orduko iraupenarekin (Seral, 2019). Lehenengo agerraldiaren ondoren, pazienteek hainbat irizpide bete behar dituzte EA diagnostikoa jasotzeko. EAREN diagnostikorako McDonaldeen 2017ko irizpide berrikusiak erabiltzen dira, adierazpen klinikoak, erradiologikoak eta likido zefalorrakideoko biomarkatzaileak kontuan hartzen dituztenak (Thompson et al., 2018). Irizpide horiei esker, nabarmen aurreratu daiteke EAREN diagnostikoa. Gaur egun, posible da nahiko seguru beste gaixotasun batzuk baztertzea eta EAREN ziurtasun-diagnostiko batera iristea kasu gehienetan. Hala ere, gaixotasun horren diagnostiko-momentua prozesu luzea, korapilatsua eta zaila izan daiteke, ezin delako aurreikusi eta diagnostikoa jaso ondoren, argi izan behar da gaixotasunak hainbat modutan eboluzionatu dezakeela. (Fernández et al., 2015).

EA bezalako gaixotasun kroniko, itzulezin eta ezgaitasuna sor dezakeen eritasun baten diagnostikoa jasotzeak, oso egoera zaila izan daiteke bai pazientearentzat, bai haren familiarentzat. Hau da, horrek eragin emozional handia izan dezake diagnostikoan inplikaturik dauden pertsona guztiengan (Povedano et al., 2019). Gainera, diagnostikoarekin bizitzea erronka bat izan daiteke, batez ere eguneroko jardueri eragiten badie (Manderson, 2020). Beraz, hasieran aipatutako sintoma neurologikoez gain, paziente horiek aldaketa psikologiko garrantzitsuak jasaten dituzte. Normala da horrelako diagnostiko bat jasotzearen ondorioz, pazienteak hainbat erreakzio izan ditzaketela, eta erreakzio horietako batzuk aurreikustea zaila izan daitekeela. Hori dela eta, garrantzitsua da paziente horiei laguntza ematea EA diagnostikatzen zaien unean (Dymecka eta Gerymski, 2020). Topcu eta bere taldeak (2020) egindako berrikuspen sistematikoan iradokitzen dute EA duten pertsona askok estres psikologikoa jasaten dutela diagnostikoari eta pronostikoari buruzko

kezken erruz baina ez dago ikerketarik EAren diagnostikoak sortutako estres horren eragina gaixotasunaren bilakaerarekin ikertzen duenik.

Argi dago, EAK maila psikologikoan bizitzako esparru guztietan eragiten duela; enplegua, harremanak, gizarte-bizitza eta eguneroko bizitzako jarduerak barne. Horrek bizi-kalitate baxua dakar pazienteentzat. Gaixotasunaren izaera dela eta, gaixotasunaren bilakaera ezin da aurreikusi, eta ziurgabetasun handia eragiten du gaixotasuna duten pertsonen artean. Beraz, ez da harritzekoa komorbilitate psikiatriko handia egotea EA duten pazienteengan (Bernia et al., 2019). Hau da, egiaztatu da EA duten pertsonen populazio orokorrak baino aukera gehiago dituztela alterazio psikologikoak izateko, eta antsietatea eta depresioa direla adierazpen psikopatologiko nagusienak (Fábregas et al., 2016).

Bestalde, estresak EAren agerpenean garrantzi handia duela frogatu da. Hori dela eta, EAri buruzko literaturan asko aztertu den konstruktua psikologikoa izan da, batez ere pazientearen bilakaera fisikoa eta psikologikoa baldintzatzen duten agerraldiak errazteko duen gaitasunagatik (Lex et al., 2022). Estresa gure organismoak presio-egoera bati, ustekabeko egoerei edo mehatxuei ematen dien erantzun fisiologikoa da, eta erreakzio emozional desatseginen multzoa dakar berekin; hala nola, antsietatea edo tristura (Gutiérrez, 2019). Hau da, estresa egoera emozionala eta fisikoa da eta estimulu estresatzaileen eraginpean denbora luzez mantentzearen ondorioz, organismoan alterazioak eragin ditzake (Pineda-Espejel et al., 2020).

Estresa hainbat sistema eta prozesu fisiologiko barne hartzen dituen fenomeno konplexua da. Pertsona batek egoera estresagarri bati aurre egin behar dionean, gorputzak interrelaziozko bi sistema aktibatzen ditu: ardatz sinpatiko adrenomeduarra (SAM) eta ardatz hipotalamiko-pituitario-adrenokortikala (HPA). SAM ardatza nerbio-sistema autonomoaren parte da, eta muin suprarrenalak epinefrina askatzea eragiten du, borroka-ala ihes-erantzuna eraginez. Bestalde, HPA ardatzak glukokortikoideak sortzen ditu, adibidez kortisola. Hipotalamoak bi sistema horiek erregulatzen ditu, eta portaeraren funtzio endokrinoen eta autonomoen arduraduna da (Romero et al., 2020; Herrera-Covarrubias et al., 2017). Aurretik aipatutako sistema neuroendokrino horietan dauden hormonek mezulari kimiko gisa jarduten dute gorputzean, organismoak estresari ematen dion erantzuna eta energiaren erabilgarritasuna erregulatuz. Hantura-prozesuak ere inhibitzen dituztela jakin izan da. Bestalde, sistema hauen erregulazioa egoki ematea oso garrantzitsua da eta



estimulu estresagarria pasa ondoren aktibazio neuroendokrino hori hasierako egoerara itzuli behar da. Izan ere, jakina da estresorearen ondoriozko erantzun fisiologikoa kronikoki mantentzen bada, osasunerako ondorio kaltegarriak egon daitezkeela (Straub eta Cutolo, 2018). Ildo honetan, hainbat ikerketek nabarmendu dute HPA ardatzeko alterazioak ohikoak direla gaixotasun psikiatrikoetan, eta horrek adierazten du sistema horrek berebiziko garrantzia duela estresarekin eta osasun mentalekin lotutako nahasmenduetan (Duval et al., 2010). Beraz, gorputzak erantzun neuroendokrino konplexuak hedatzen ditu estresari aurre egiteko, hainbat sistema eta hormona erabiliz egoerara egokitzeko eta barne-oreka mantentzeko, eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu neurobiologian eta osasun mentaleko nahasmenduen ulermenean.

Estresaren biomarkatzaile aztertuenen artean kortisola eta alfa-amilasa daude. Kortisola, HPAk estresari erantzuteko askatutako glukokortikoidea da, eta organismoan eragin desberdinak ditu, adibidez, immunitate-sisteman eta inflamazio erantzunaren erregulazioan (Bernia et al., 2019). Bestalde, alfa-amilasa SAM ardatzak sortutako entzima bat da, estres egoeretan areagotzen dena (Ali eta Nater, 2020). Biomarkatzaile horien neurketa asko erabili da estresari buruzko azterlanetan. Adibidez, Strahler eta bere taldekideek (2017) korrelazio positiboa aurkitu zuten kortisol eta alfa-amilasa mailen eta estresaren artean unibertsitateko ikasleengan. Gainera, frogatu da kortisola eta alfa-amilasa neurtzea baliagarria izan daitekeela estresak hainbat biztanleria-taldetan duen eragina ebaluatzeko, hala nola gaixotasun kronikoak dituzten pazienteengan edo lan-egoera estresagarriak dituzten langileengan (Pineda-Espejel et al., 2020). Laburbilduz, kortisola eta alfa-amilasa biomarkatzaile garrantzitsuak dira estresari emandako erantzun fisiologikoan, eta estresak populazio desberdinetan dituen ondorioak ulertzeko erabil daiteke.

Estresak nerbio-sisteman, sistema endokrinoan eta, bereziki, immunitarioan dituen ondorioek (Robles et al., 2005) EAren bilakaeran faktore garrantzitsua izan dezaketen hipotesia sortu da. Era berean, estresaren eta gaixotasunaren agerraldiak edo okertzeak jasateko probabilitate handiagoaren arteko lotura babesten duen ebidentzia zientifikoa handituz doa (Artemiadis et al., 2011). Estresaren eta EAren arteko erlazioaren behin betiko azalpen-esparrurik oraindik ez dugun arren, egile batzuek (Esch et al., 2002) uste dute estresa funtsezko engranajea izan daitekeela EAren mekanismoak hainbat mailatan ulertzeko (fisiologikoa, anatomikoa, etab.), progresioan izan dezakeen eraginean barne. Autore berberak estres psikosozialaren eta EAren bilakaeraren artean lotura garrantzitsu



bat nabarmendu zuten beste azterlan batzuk berrikusi zituztenean. Asko dira gaixotasunak ezarritako egoerek, pazientearengan estresa sor dezaketenak; hala nola, diagnostikoaren komunikazioa, pronostikoari buruz jasotzen den informazioa, tratamendu farmakologiko batzuen eragin ahulgarria, etab. (Mateu, 2018).

Orokorrean gaixotasun kroniko baten eskakizunei eta horrekin lotutako estresari aurre egiteko, pazienteek zenbait laguntza-mekanismo jartzen dituzte abian, aurre egiteko estrategiak izenekoak. EA gaixotasun kroniko moduan ulertzen dugun heinean, aurre egiteko estrategiak eritasunaren garapenean garrantzitsuak izango dira (Wilski et al., 2021). Beraz, gaixotasun kroniko bati aurre egitea, faktore egonkortzailetzat hartzen da. Estres-maila altuko aldietan norbanakoei egokitzapen psikosoziala mantentzen lagun diezaiekeena, estresaren ondorio desegonkortzaileen aldagai bitartekari edo erregulatzaile gisa funtzionatuz (Vanotti et al., 2021). Aurre egiteko estrategiei buruzko hainbat ikuspegi kontzeptual nagusi daude. Moos-ek (1993) proposatutako aurre egiteko ereduak bi aurre egiteko estilo ditu. Lehenengoa arazoan oinarritutako aurre egitea da, egokitzeko aurre egiteko estrategia ere esaten zaiona, eta analisi logikoa, ebaluazio positiboa, orientazioa bilatzea, laguntza bilatzea eta arazoak ebazteko estrategiak hartzen ditu barne, faktore estresagarriak aktiboki konpontzeko. Bigarren estiloak emozioan oinarritutako aurre egitea adierazten du, saihesteko estrategia gisa ere ezagutzen dena, eta barnean hartzen ditu pentsamenduaren saihestea, onarpen-etsipena, txandakako sarien bilaketa eta deskarga emozionaleko estrategiak, estresorean eta horren inplikazioetan pentsatzea saihestera bideratuak. Oro har, egokitzapenean oinarritutako estrategiekin osasun fisiko eta mentaleko emaitza hobekien aurreikusten dira, eta aurre-egite saihesgarriko estrategiak, berriz, osasun fisiko eta mentaleko emaitza negatiboekin eta bizi-kalitate txarrarekin lotzen dira (Cerea et al., 2021).

Egokitzeko aurre egitea onuragarria da EA duten pertsonentzat, ez bakarrik aurre egiteko estrategiek gaixotasunera egokitzapen psikosozialarekin duten loturagatik, baita estresaren eta gaixotasunaren progresioaren arteko erlazio posibleagatik ere. Hala ere, frogatu da EA duten pertsonen aurre egiteko estrategia ez-egokitzailak erabiltzen dituztela, adibidez, saihestea eta ilusioa (Holland et al., 2019). Literaturarekin bat etorritik, aurre egiteko estilo desegokitzailak estres, depresio eta antsietate maila altuagoak eta bizi-kalitate txikiagoa aurreikusten dituzte, eta aurre egiteko estilo egokitzailak estresaren, depresioaren eta antsietatearen maiztasun maila baxuagoak eta bizi-kalitate handiagoa aurreikusten dituzte (Grech et al., 2018). Cerea-ren eta bere lankideen (2021) ikerketan



erakusten dute estres orokorraren aurkako erreakzio emozionalak EA duten pertsonen aurre egiteko modu ohikoa direla. Beste berrikuspen sistematiko batek (Keramat Kar et al., 2019) erakutsi du gaixotasun kronikoak dituzten pazienteek gehiagotan erabiltzen dituztela emozioetan oinarritutako aurre-egite jokabideak eta saihesteko estrategiak arazoetan oinarritutako estrategiak baino, bereziki EA diagnostikatu ondorengo lehen faseetan. Aurkikuntza horrek adierazten du diagnostikoaren unean egoeraren alderdi positiboak identifikatzeak epe ertainerako edo luzerako desgaitasun fisiko hobea aurreikus dezakeela. Aldiz, saihesteko aurre-egite estrategia mota estresaren larritasun handiagoarekin eta ondoez psikologikoarekin lotu da (Sommer et al., 2010).

Gaixotasuna aurreikusi ezina denez, bizitza osoan irauten duenez eta EAren ibilbidea oso indibiduala denez interesgarria da EA duten pertsonen gaixotasunari egokitzeko nola egiten dioten aurre aztertzea (Holland et al., 2019). Adibidez, hainbat ikerketek frogatu dute desgaitasun fisiko handiagoa, Desgaitasunaren Egoeraren Eskala Hedatuak (EDSS, expanded disability status scale) neurtua, saihesteko estrategiak erabiltzearekin lotzen dela. Hala ere, beste ikerketa batzuek ez zuten desgaitasun fisikoaren eskalan desberdintasunik aurkitu EAri aurre-egite ezberdinen arabera (Cerea et al., 2021). Holland-en eta bere lankideen (2019) azterlanean EDSS puntuazio baxuenetan saihesteko aurre-egite estrategiak erabiltzeko probabilitate txikiagoa aurkitu dute eta desgaitasun maila baxua duten pazienteek errazago aurre egiten diete faktore estresagarriak. Interesgarria da ikerketa horren emaitzan ikustea EDSS altuagoak dituzten pertsonengan estrategia saihegarriak eta desegokigarriak gehiago erabiltzen dituztela. Desgaitasun fisiko eta kognitiboaren neurri objektiboek gain, pazienteek hautemandako gaixotasunaren kargak edo inpaktuak funtsezko informazioa eman dezake EAren garapena maila indibidualean neurtzeko orduan (Garin et al., 2022). Bestalde, gaixotasunaren inpaktuaren pertzepzioak, bizi-kalitatearekin harreman zuzena du. Staniszevska-k eta bere taldekideek (2017) egindako ikerketa batean desgaitasun neurologikoaren eta EAk eremu fisiko eta psikologikoetan bizi-kalitatean duen eraginaren arteko lotura zegoela erakutsi zuten. Gainera, garun-bolumenaren eta desgaitasun fisikoaren arteko erlazioa ikertzen zuen proiektu baten emaitzek adierazi zuten desgaitasun fisikoaren eta gaixotasunarekiko pertzepzio negatibo indibiduala progresiboki handitzen direla, gutxi gorabehera aldi berean (Moridi et al., 2022).

Atal honi dagokionez, ikusi da kortisolak, EA duten pazienteen erantzun endokrinoa den aldetik, eragina duela gaixotasunaren aldaketetan eta progresioan. Kern eta



lankideek (2013) egindako ikerketa batean, desgaitasun neurologikoan progresio handiagoa izatearen eta esnatzean neurtutako kortisol-maila altuagoaren arteko lotura aurkitu zen, bederatzi hilabeteko jarraipen-aldian. Gainera, ikusi zuten EDSSren puntuazioaren eta ikerketaren hasieran esnatzean neurtutako kortisolaren konbinazioa etorkizuneko EDSSren puntuazioaren iragarpena izan ahal zela. Aurkikuntza horien arabera, kortisolak zeregin garrantzitsua izan dezake aldaketa endokrinoetan eta gaixotasunaren progresioan. Hala ere, ez da ikertu zer erlazio egon daitekeen alfa-amilasaren mailen eta EDSSren puntuazioen artean.

Laburbilduz, testu honetan estres psikologikoak EA duten pazienteengan duen eragina aztertzen da, bereziki diagnostiko unean. Artikulu desberdinek azaltzen duten moduan, EAren diagnostikoa prozesu luzea eta konplikatua izan daiteke, eta horrek eragin emozional esanguratsua izan dezake pazientearengan eta haren familiarengan. Gaixotasun kronikoa eta ezgaitzailea denez pazientearen bizi-kalitateari eragin diezaioke. Halaber, hainbat artikuluk estresaren eta EA gaixotasunaren garapenaren arteko lotura ere nabarmendu dute, eta estresaren aurre-egite jokabide ezberdinak erabiltzen dituzten artean ezberdintasunak egon daitezkeela azpimarratu dute. Ikerketek erakutsi dute EA duten pazienteek joera handiagoa dutela estres-maila handiagoa izateko biztanleria orokorrarekin alderatuz, eta, beraz, funtsezkoa da pazienteei beren ongizate psikologikoa kudeatzen laguntzea, batez ere diagnostiko momentuan.

HELBURUA

Aurretik aipatutako bibliografian oinarrituta, ikerketa honen helburu nagusia da EAren diagnostikoa jasotzeak, estresore moduan ulertua, gaixotasun horren garapenean duen eragina aztertzea.

Helburu zehatzei dagokienez;

1. EAren diagnostikoak sortutako estresak desgaitasun-mailaren garapenean duen eragina aztertzea.
2. EAren diagnostikoak sortutako estresak paziente hauek jasaten duten inpaktu subjektiboan duen eragina aztertzea.
3. Aurre-egite estrategien eta diagnostikoaren uneko estresaren arteko erlazioa ikertzea eta estrategia ezberdinek gaixotasunaren bilakaeran nola eragiten duten aztertzea.



HIPOTESIAK

Hipotesi orokorra da EA diagnostiko momentuan estres-maila handiagoa erakusten duten subjektuek, gaixotasunaren eboluzio okerragoa garatuko dutela.

Hipotesi zehatzei dagokionez;

- Lehenengo hipotesi zehatza da esklerosi anizkoitzaren desgaitasun-mailaren, gaixotasun inpaktuaren pertzepzioaren eta estresaren biomarkatzaileen (kortisol eta alfa-amilasa) analisiaren artean korrelazio positibo bat egongo dela; hau da, diagnostiko momentuan zenbat eta estresaren biomarkatzaileak altuagoak izan, gero eta gaixotasunaren garapena okerragoa izango dute parte hartzaileek ikerketaren amaieran.
- Bigarren hipotesi zehatza da, estresaren test psikologikoan (PSS) puntuazio altuagoak ateratzen dituzten parte hartzaileek, EA diagnostikoa jaso ondoren, gaixotasunaren garapen okerragoa (desgaitasun-maila eta gaixotasunaren inpaktu pertzepzio altua) izango dutela.
- Hirugarren hipotesi zehatza da, distresaren test psikologikoan (IES-R) puntuazio altuagoak ateratzen dituzten parte hartzaileek, EA diagnostikoa jaso ondoren, gaixotasunaren garapen okerragoa (desgaitasun-maila eta gaixotasunaren inpaktu pertzepzio altua) izango dutela.
- Laugarren hipotesi zehatza da saihesteko aurre-egite estiloa azaltzen duten parte hartzaile taldeak desgaitasun-maila eta gaixotasunaren inpaktu pertzepzio altuagoa adieraziko dutela, egokitzeko aurre estiloa duten partaideen taldearekin alderatzerakoan.

INTERES ZIENTIFIKOA

EA mundu mailan milaka pertsoneri eragiten dien gaixotasuna konplexua da; hori dela eta, “mila aurpegi gaixotasuna” bezala ezagutzen da. Hain anitza da gaixotasun hori, ikuspuntu desberdinetik ikertu ahal eta behar dela, gaixotasunaren alderdi guztiak hobeto ulertu ahal izateko. Kasu honetan, ikerketa ikuspuntu psikobiologiko batetik bideratuko dugu, zehazki estresaren puntutik.


Alde batetik, zenbait ikerketatan ikusi da estresak eragina duela gaixotasunaren garapenean. Bestalde, ikerketa asko ados daude gaixotasun kroniko baten diagnostikoari



modu ez-egokitzaille batean aurre egiteak pazienteari arazo psikologikoak ekar diezazkiokeela, adibidez, estresa (1.irudia). Hori oinarritzat hartuta, interesgarria litzateke ikertzea zer lotura dagoen EAren diagnostiko bat jasotzeak sortutako estresaren eta gaixotasun horren bilakaeraren artean.

1.irudia

Estresaren, gaixotasunaren eta aurre-egite estrategien arteko erlazioa.



Oharra: Grafiko honen bidez, adierazi nahi dugu estresa, gaixotasuna (estresore moduan ulertua) eta aurre egite estrategiak ez direla norabide bakarrekoak. Baizik eta, elementu guztiak elkarrekin lotuta daudela.

Bestalde, gaur egun, harreman hori ikertzen duten hainbat ikerketa daude, baina ez dira diagnostikoaren unean oinarritzen eta alfa-amilasa mailak ere ez dituzte neurri biologiko gisa erabiltzen; beraz, proiektu honek balio gehigarria eta berritzailea du. Korrelazio zuzen bat aurkituz gero, oso aurkikuntza garrantzitsua izango litzateke paziente horien bizi-kalitaterako. Gaixotasunaren garapen okerragoa bizi-kalitate okerragoarekin lotzen baita, eta proiektu psikobiologiko orok bezala, pertsonen bizi-kalitatea hobetzea bilatzen dugu guk baita ere. Hori kontuan hartuta, ikerketa honek etorkizuneko ikerketetarako bidea eman dezake, gaixotasun horren diagnostikoa jaso ondoren paziente horiek bizi duten aldarre psikologikoaren eta fisikoaren egoera jakiten eta ulertzen lagundu ahal duelako. Hau da, ikerketa honek lagunduko luke hasierako diagnostikotik laguntza psikologikoaren garrantzia azaltzen eta gaixotasunean estresa ondo kudeatzen, pazienteek bizi-kalitate ahalik eta onena izan dezaten.

Amaitzeko, EAK paziente eta haien familien osasunean duen eraginaz gain, gizartean duen inpaktua ere altua da; izan ere, zuzeneko kostuak, hala nola tratamendu medikoa, ekuazioaren zati bat baino ez dira. Zeharkako kostuak, hala nola diru-sarreraren galera eta lan-produktibitatearen murrizketa, oztopo handiak dira EA duten pertsonentzat



eta, oro har, gizartearentzat. Hala ere, gaixotasuna maneiatzeko ikuspegi holistikoa hartzen badugu, karga ekonomikoa murriztu eta EA duten pazienteen bizi-kalitatea hobetu dezakegu (Bebo et al., 2022). Hori egitean, estresa areagotzea prebenitu genezake, eta osasun-sistemara bisitak egiteko beharra murriztu. EA duten pazienteen egoera fisikoa eta mentala hobetzean, osasun arretaren beharrak gutxituko dira eta, beraz, osasun-sistemaren kostu ekonomikoa murriztu egingo da, baita kostu sozioekonomikoa ere.


METODOLOGIA

DISEINUA

Luzaroko-diseinua da, eta, guztira, bost urte eta erdiko iraupena izango du, kontuan hartuta erreklutamendu fasea hiru urtez egingo dela eta parte-hartzaileek bi neurketa izango dituztela bi urteko aldearekin. Hau da, parte-hartzaileak inklusio-irizpideak betetzen dituenean gaixotasunaren garapenarekin erlazionatutako aldagaiak, test psikologikoak eta lagin biologikoak jasoko zaizkio (diagnostikoa jaso eta asko jota 6 hilabetetara) eta bi urteren ondoren, berriro, gaixotasunaren garapenarekin erlazionatutako aldagaiak jasoko zaizkio (2.irudia). Laginari dagokionez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzu Publikotik datozen EAekin diagnostikatutako pazienteek osatuko dute ikerketa-lagina. Horretarako, Unibertsitate Ospitaleetako neurologoen (Txagorritxu, Galdakao-Usansolo, Gurutzeta, Basurtu eta Donostia) eta UPV/EHUren lankidetzari esker egingo da.

2.irudia

Parte-hartzaileen neurketa indibidualen denbora-lerroa.



Oharra: Eskema honek azaltzen du ikerketaren partaide bakoitzak jarraitu beharko duen proba-prozesu indibiduala, diagnostikoaren unetik (0. urtea) ikerketa amaitu arte (2. urtea).

IKERKETAKO LAGINAREN HAUTAKETA

Parte-hartzaileak hautaketa-prozesu batetik pasako dira, azterketaren hautagarritasun-irizpideak betetzen dituzten erabakitzeke.

1. Inklusio- eta baztertze-irizpideak

1.1 Inklusio-irizpideak:

- Emakumea izatea.
- EA duten gaixoak, McDonald-en irizpideen arabera.
- EA gaixotasunean RR fenotipo klinikoa edukitzea.
- EAren diagnostikoa gehienez duela 6 hilabete jaso izana.
- Lehen mailako tratamendu farmakologiko (interferon, acetato glatiramero, teriflunomida, dimetil fumarato, etab) bat jasotzea.
- Ikerketan parte-hartzea onartu eta baimen informatua sinatu beharko dute.

1.2 Baztertze-irizpideak:

- Ikerketan parte hartzeko ezintasun fisikoa edo psikikoa duten subjektuak.
- Haurdun dauden subjektuak.
- Glukokortikoide tratamenduan egon diren pazienteak azken hiru hilabeteetan.
- EDSSan 6,5 puntu edo gehiago duten pazienteak.

2. Erretira-irizpideak

Ikerketan parte-hartzea guztiz borondatezkoa da. Paziente batek edozein unetan eta edozein arrazoiengatik ikerketatik erretiratzeko eskubidea du. Baimena kentzen duten pazienteak ikerketatik erretiratutzat joko dira

LAGINAREN DESKRIBAPENA

Gure ikerketan lagin esanguratsu bat lortzeko, laginaren tamaina *a priori* kalkulatu dugu. Horretarako, *G*Power* softwarea (Faul et al., 2009) erabili dugu. Análisi estatistiko gehienak korrelazioak izango direla oinarritzat hartuta parametro hauek erabili ditugu: % 5eko laginketa errorea, % 80ko potentzia-maila eta 0,5eko korrelazioa. Emaitza 23 parte-hartzaile izan dira ikerketako lagina esanguratsua izateko, baina kontuan hartuta pazienteen



ikerketatik erretiratzeko arriskua dagoela, nahiz eta arriskua txikia izan, lagin kopurua 25era igotzea erabaki dugu.

Aurretik aipatutako laginaren tamaina eta aipatutako irizpideak kontuan hartuta, ikerketa honetako parte-hartzaile guztiek Esklerosi Anizkoitzaren diagnostikoa jaso izan behar dute Osakidetzaren Euskal Osasun Zerbitzuan. Espainian EAri buruz egin zen azterlan epidemiologikoa, sexu-ratioa kontuan hartuta, non Bizkaiko probintziak urteko 2,8 biztanleko intzidentzia baitzuen 2001ean, erabaki dugu erreklutamendu-faseak hiru urte irautea, gure lagin esanguratsua lortu ahal izateko. Gure azterlana Euskal Autonomia Erkidegoan (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba) garatuko denez, eta intzidentzia igotzen ari denez urteen poderioz, hiru urteko erreklutamendua nahikoa izango litzateke; beraz, 2024, 2025 eta 2026 urteetan parte-hartzaileen erreklutamendua egingo da.

IKERKETAN NEURTUTAKO ALDAGAIK ETA ERABILITAKO INSTRUMENTUAK

1. Parte-hartzaileen aldagai demografikoak

Hasierako bisita medikoaren adina. Aldagai kuantitatibo gisa neurtuko da.

2. Gaixotasunaren garapenarekin lotutako aldagaiak

2.1. Desgaitasun-maila: Desgaitasun Egoeraren Eskala Hedatua (EDSS) bidez neurtuta.

Kurtzke-k (1983) garatutako disfuntzio neurologikoaren eskala erabiliko dugu (EDSS, Expanded Disability Status Scale), disfuntzioa 0tik (normala) 10era (heriotza) puntuatzen duena, 0,50 puntuko tarteekin. EAko narriadura neurologikoaren maila ebaluatzeko eskala hori 8 Sistema Funtzionalen (SF) eta Desgaitasunaren Estatu Eskalaren (DSS) konbinazioa da. Bi neurketa horiek kontuan hartuta Kurtzek-ek sortu zuen Desgaitasun Egoeraren Eskala Hedatua (EDSS). Eskala honetako puntuen esleipena zailtasun-neurrietan oinarritzen da, zehazki, zortzi sistema funtzionaletan: sistema piramidala (ahultasuna edo gorputz-adarrak mugitzeko zailtasuna), zerebelarra (ataxia, koordinazioa galtzea edo dardarak), erraboil errakidea (hizketa-arazoak, irensketa eta nistagma), sensorialak (sentsazioak muturtzea edo galtzea), heste- eta maskuri-funtzioa, ikusmen-funtzioa, garuneko funtzioak (mentalak) eta beste batzuk. Aldagai kuantitatibo jarraitu gisa neurtuko da eta paziente bakoitzarentzat EDSSaren puntuazioa jasoko da ikerketaren hasieran (pre-test)



eta ikerketaren amaieran (post-test). Horretarako EDSS eskala banakatua (Ikus I.ERANSKINA) erabiliko da.

2.2. Gaixotasunaren perspektiba indibiduala: Pazienteak esklerosi anizkoitzaren inpaktu-eskalaren (MSIS-29) bidez neurtuta.

Esklerosi anizkoitzaren inpaktu-eskala (MSIS-29, Multiple Sclerosis Impact Scale) 2001ean balioztatu zuen Hobart-en taldeak eta EAko gaixotasun espezifikolari buruz pazienteak duen perspektiba neurtzen du. Testak 29 item ditu: inpaktu fisikoa (20 item) eta psikologikoa (9 item) aztertzen ditu. MSIS-29 testaren item bakoitzari 5 puntuko Likert eskala batetik erantzun behar zaio. Baliozkotasunari, barne-sendotasunari eta test-retest fidagarritasunari buruzko emaitzak egokiak izan ziren (Hobart et al., 2001). Bi eskalen puntuazioak item indibidualak gehituta sortzen dira, eta ondoren 0-100 eskala batean emaitzak bihurtzen dira. Puntuazio altuek osasun-egoera okerragoa adierazten dute. Beraz, aldagai kuantitatibo jarraitu gisa neurtuko da. Testaren puntuazioa jasoko da ikerketaren hasieran (pre-test) eta ikerketaren amaieran (post-test).

3. Estresaren markatzaile psikologikoein lotutako aldagaiak

3.1. Pazienteak hauteman duen estres-maila: Pazienteak Hautemandako Estresa eskalaren (PSS) bidez neurtuta.

Hautemandako Estresaren Eskala (PSS, Perceived Stress Scale) azken hilabetean hautemandako estresaren maila ebaluatzen duen autotxosteneko tresna bat da. 14 item ditu, bost puntuko Likert eskalako erantzun-formatuarekin. PSSren guztizko puntuazioa lortzeko, 4., 5., 6., 7., 9., 10. eta 13. itemetako puntuazioak alderantzikatu behar dira eta ondoren 14 itemak batu (Cohen eta Mermelstein, 1983). Zuzeneko puntuazioak adierazten du puntuazio handiagoari hautemandako estres-maila handiagoa dagokiola. Beraz, aldagai kuantitatibo jarraitu gisa neurtuko da.

3.2. Aurre egiteko estrategia mota: aurre egiteko estrategien inbentarioa - formulario laburtuaren (CSI-SF) bidez neurtuta.

Aurre egiteko estrategien inbentarioa - formulario laburtuaren (CSI-SF, Coping Strategies Inventory - Short Form) testak bi ardatzetatik ebaluatzen ditu aurre-egite estrategiak: lehen ardatz batean egokitzapen eta saiheste estrategiak kokatzen dira.



Eta bigarren ardatz batean, aurre egiteko bi kategoria objektiboak kokatzen dira, arazoaren eta emozioaren bidezko ebazpena. CSI-SF testaren item bakoitzari 5 puntuko Likert eskala batetik erantzun behar zaio (Addison et al., 2007). Gure ikerketaren emaitzetarako inbentario honen lehenengo ardatza soilik erabiliko dugu. Hau da, test psikologikoaren parte-hartzaileen emaitzen arabera bitan banatuko ditugu: egokitzapen aurre-egite estrategia taldea eta saiheste aurre-egite estrategia taldea. Beraz, neurketa kualitatibo dikotomikoa (egokitzapena edo saihestea) izango da. Talde batean edo bestean kokatzeko kontuan hartuko da zein aurre-egite estrategiatan ateratzen duten puntuaziorik altuena.

3.3. Distres-maila: gertakarien inpaktu-eskalaren (IES-R) bidez neurtuta.

Gaixotasunarekin lotutako larritasun psikologikoa gertakarien inpaktu-eskala (IES-R, Impact of Event Scale Revised) delakoaren bidez neurtuko da. Galdetegi honek EAk pairatzearen distres-maila neurtzen du, gaixotasunarekin lotutako pentsamenduen eta sentimenduen intentsitatean zentratuz azken zazpi egunetan. Galdeketak hiru eskala ditu: 7 itemeko intrusio-eskala bat, 7 itemeko hiperaktibazio-eskala bat eta 8 itemeko saiheste-eskala bat (Weiss eta Marmar, 1997). Testaren amaierako puntuazioa, puntuazio kuantitatibo jarraitu gisa definituko da. Beraz, gero eta puntuazio handiagoa, gero eta larritasun psikologiko altuagoa adieraziko dute parte-hartzaileak.

4. Estresaren biomarkatzaile biologikoak

4.1. Kortisola

Kortisolaren ebaluazio objektiboa stres-mailak neurtzeko tresna erabilgarri eta fidagarri gisa ulertzen dugu. Hormona honek ziklo zirkadiano konplexua duela kontuan hartuta, bi modu desberdinetan neurtuko dugu, datu baliagarriak eta fidagarriak eskuratzeko. Kortisol-neurketak ilean eta listuan egingo dira. Gainera, bi analisi-metodo horiek ez-inbaditzaileak, minik gabekoak eta gauzatzen errazak dira.

Ile-kortisola stres akumulatuaren biomarkatzaile bat da, hau da, kontuan izanda ilearen hazkuntza-tasa 1 cm-koa dela hilabeteetan, larru-azaletik gertuen geratzen den 1 cm-ko zati batean neurtutako kortisol-maila azken hilabeteetan izandako kortisol-maila metatua izango dela estima dezakegu. Gure ikerketan



garun-azaletik gertuen dauden 3 cm-ko ile-zatia aztertuko da, eta, beraz, azken 3 hilabeteetan metatutako kortisol-maila neurtuko dugu. Ilea biltzeko, punta fineko guraize kirurgiko garbiak erabiliko dira. Jaso ondoren, laginaren buruko ile-larruaren muturra identifikatuko da, eta ilearen laginak giro-tenperaturan biltegitratuko dira, gehienez 12 hilabetez. Ileko-kortisola erradioinmunosaioteknika (RIA, RadioImmunoAssay) bidez neurtuko da metanolaren bidez egindako erauzketatan (Babarro et al., 2022). Zuzeneko kortisol-mailak adierazten du kortisol-maila handiagoari estres-maila metatu handiagoa dagokiola. Beraz, aldagai kuantitatibo jarraitu gisa neurtuko da.

Estresaren eguneroko erantzuna neurtzeko, lau listu-lagin (esnatu bezain pronto, esnatu eta 30 minutura, bazkaldu aurretik eta afaldu aurretik) hartuko ditugu egun berean, eguneko kortisolaren kurba izateko. Listu-lagina biltzeko propilenozko hodi gardenak erabiliko dira, tapoia eta 2 ml-ko edukiera dutenak (Salimetrics) eta listu-laginak -80°C -ko hozkailu batean hodi esteriletan biltegitratuko dira, azertu arte. Listu-kortisol mailak ELISA metodoaren bitartez neurtuko dira, kit komertzial bat erabiliz (Salimetrics Assay #1-3002). Kortisol zehaztapena $\mu\text{g/dL}$ -tan adieraziko da. Analisia egin ostean kurbaren azpiko azalera (*area under curve*) kalkulatu egingo da, eta, beraz, aldagai kuantitatibo jarraitu gisa neurtuko da.

4.2. Alfa-amilasa

Eguneko alfa-amilasaren kurba neurtzeko, kortisolaren kurba egiteko prozedura, material eta listu-agin berdina erabiliko dugu; hau da, lau-listu lagin jasoko ditugu estresaren eguneroko erantzuna neurtzeko eta -80°C -ko hozkailu batean biltegitratuko dira, azertu arte. Listuko alfa-amilasa mailak ELISA metodoaren bitartez neurtuko dira, kit komertzial bat erabiliz (Salimetrics Assay #1-1902) eta zehaztapena $\mu\text{g/dL}$ -tan adieraziko da. Analisia egin ostean kurbaren azpiko azalera (*area under curve*) kalkulatu egingo da, eta, beraz, aldagai kuantitatibo jarraitu gisa neurtuko da.

Kortisolaren eta alfa-amilasaren listu-laginak hartu aurretik, parte-hartzaileei jarraibide-orri bat (Ikus II.ERANSKINA) emango zaie, listu-lagin bakoitza hartu aurretik egin beharko dutenarekin azaltzen.

PROZEDURA

Pazienteak EAren diagnostikoa jaso duenean Osakidetzako zerbitzu publikoan, bertako neurologoak ikerketari buruzko informazioa emango dio. Pazienteak parte hartzea eta baimen informatua sinatzea erabakitzen badu, gure ikerketaren parte-hartzailea bihurtuko da. Diagnostikoa jaso dutenetik hurrengo sei hilabeteetara arte, hainbat proba egingo dira. Diagnostikoaren unean, EDSS proba neurologoak egingo du, berezko ebaluazio neurologikoaren parte izanik.

Alde batetik, parte-hartzaileei hainbat test psikologiko (MSIS-29, PSS, CSI-SF eta IES-R) betetzeko eskatuko zaie diagnostikoa jaso eta gehienez hiru hilabeteetara, diagnostikoaren berriak sortu dien egoera psikologikoa neurtzeko. Horiek gaztelaniaz egingo dira; izan ere, gaur egun test psikologiko horiek ez dute bertsio psikometriko balioztatua euskaraz, baina bai gaztelaniaz. Horretarako, hainbat aukera izango dituzte: *Google forms* batean (Ikus III.ERANSKINA) testak betetzea. Horretarako QR kode (Ikus IV.ERANSKINA) baten bidez sartuko dira edo, nahiago izanez gero, test psikologiko inprimatuak (Ikus V.ERANSKINA) emango zaizkie paperean betetzeko. Jarduera hori egin aurretik, identifikazio-kode bat esleituko zaio parte-hartzaile bakoitzari, konfidentzialtasuna gordetzeko eta datu pertsonalik ez izateko (izena, posta elektronikoa, etab.). Parte-hartzaileek ere ez dute jakingo test psikologiko bakoitzak zer neurtzen duen, erantzunetan eraginik ez izateko. Behin hori eginda, protokoloa zuzentzeaz eta datu-base bat sortzeaz arduratuko diren psikologoak egongo dira, ondoren analisiaren atala errazteko.

Bestalde, lehenengo sei hilabeteetan proba biologikoak egingo dira, kontuan hartuta pazienteek ez dutela glukokortikoidedun farmakorik hartu, horiek gure laginaren emaitzak oztopa ez ditzaten. Beraz, parte-hartzaile bakoitzarekin erabakiko da zein den lagin biologiko horiek biltzeko unerik egokiena. Zehazki, ilearen lagina diagnostikoa jaso eta hirugarren eta seigarren hilabeteen artean jasoko da. Listu-lagina ere lehen aipatutako baldintzaren arabera izango da. Aldiz, listu-lagina ahalik eta lasterren jasoko da, diagnostikoaren momentuarekin lotutako estres-mailak analisisian islatzeko. Horrela, laginak baliagarriagoak izango dira gure ikerketaren helburu nagusiari dagokionez.

Lehenengo sei hilabeteetan proba guztiak bildu eta biltegitatu ondoren, bi urte itxarongo da post-testak egiteko. Parte-hartzaile bakoitzaren Osakidetzako neurologoak EDSS proba egingo die berriro, eta test psikologikoei dagokionez bakarrik MSIS-29 pasatuko zaie, gaixotasunaren garapena denboran ebaluatu ahal izateko. MSIS-29 testari




dagokionez, pre-testean dituzten aukera berberak izango dituzte: online edo eskuz egiteko aukera, betiere konfidentzialtasuna eta informazio pertsonala gordez.

KRONOGRAMA

3.irudia

Gant-en diagrama



Oharra. Kronogramak ikerketa osoaren prozesua adierazten ditu.

ANALISI ESTADISTIKOAK

Analisi estatistikoak egiteko *JAMOVİ* (2022) software informatikoa erabiliko da, emaitzak matematikoki prozesatzeko.

Estatistiko esanguratsutasuna $p < 0.05$ balio batean finkatuko da, ikerketa osoaren analisi estatistikoetan.

Aldagai kualitatibo dikotomikoaren, aurre egite motaren, azterketa deskribatzailea batz bestekoetan (BB) egingo da, kategoria bakoitzerako % 95eko konfiantza-tartearekin batera. Horretarako kobariantedun diseinua egingo da. Aurre egite mota (egokitzapena eta saihestea) aldagai askea da, neurketa uneak (pre-test eta post-test) kuantitatibo jarraitua bezala neurtuko dira aldagai arrotzak izanda eta desgaitasun-maila (EDSS) eta gaixotasun inpaktu pertzepzioa (MSIS-29), menpeko aldagaiak izanda, kuantitatibo jarraituak bezala neurtuko dira. Analisi honen koaldagaia pre-testa da. Aldagaiak definitu ondoren eredu estatistikoaren aurretikoak egiaztatu behar dira: aldagai askearen eta koaldagaiaren arteko



askatasuna eta erregresio malden homogeneousuna. Aurretikoak betetzen direla egiaztatzeko, *ANCOVA* analisi estatistikoa erabiliko da. Ondoren, *ANCOVA*rekin aldagai askearen eta menpeko aldagaiaren arteko erlazioa aztertuko da, efektuaren tamaina (w^2) kontuan hartuz.

Aldagai kuantitatibo jarraituak aztertzeko korrelazio partziala erabiliko da; hau da, aldagai askeen (PSS puntuazioa, IES-R puntuazioa, kortisol-maila hilean, kortisol-maila listuan eta alfa-amilasaren maila) eta menpeko aldagaien arteko korrelazioa aztertuko da (EDSS balioa post-test eta MSIS-29 puntuazioa post-test), kontrol-aldagaiak kontrolatuz (EDSS balioa pre-test eta MSIS-29 puntuazioa pre-test). Aldagai kuantitatiboan azterketa inferentziala egin aurretik, *Shapiro-Wilk* (S-W) proba erabiliko da laginen banaketaren normaltasuna aztertzeko. Aurretikoa betetzen direla egiaztatu ondoren, korrelazio partzialak aztertzeari ekingo genioke, erregresioaren atalean. Suposatzen normaltasun aurretikoa beteko dela, *Pearson* korrelazio-koefizientea erabiliko dugu (aurretikoa ez balitzateke beteko *Spearman* korrelazio-koefizientea erabili beharko genuke). Eraitzen korrelazio-indarra honela sailkatuko dugu: $r < 0,3$ indar ahula, $0,3 < r < 0,7$ indar moderatua eta $r > 0,7$ indar altua.

ASPEKTU ETIKOAK

Proiektu honetako ikerketa-taldeak etika txostena (Ikus VI.ERANSKINA) entregatuko du, UPV/EHUko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen (GIEB) onespina jasotzeko. Ikerketa Helsinkiko Adierazpenean (World Medical Association, 2013) adierazitako eskakizunen arabera egingo da. Horrez gain, ikerketan parte hartuko duten paziente guztiek baimen informatua (Ikus VII.ERANSKINA) sinatu beharko dute. Ohar orokor gisa, proiektu honen datuen konfidentzialtasuna ezinbesteko baldintza izango da beti, eta datuen erabilera protokolizatutako eta autoritateei jakinarazitako helburuetarako baino ez da erabiliko.

IKERKETAN ESPERO DIREN EMAITZAK ETA MUGAK

EAKo diagnostiko batek sortutako estresaren eta horrek gaixotasunaren bilakaera inguruan eskuragarri dagoen literatura zientifikoan dauden mugak zailtasun handia ekarri du lan honetan proposatutako aldagaien analisia kontuan hartzen duten ikerketak aurkitzeko orduan. Gainera, kontsultatutako azterlan gehienek gaixotasunean zehar

aztertzen dute estresa, ez bakarrik diagnostikoaren uneko estresa, edo diagnostikotik sortutako estresa, gure ikerketan bezala. Hau da, estresa aztertzen dute EA ez diren gaixotasun kronikoetan; beraz, ez dago gure antzeko ikerketarik emaitza baliagarriak emateko oinarri gaituenik. Horrek nabarmen baldintzatu du planteatutako premisak justifikatzeko erreferentzia kuantitatiboak eskuratzea. Hala ere, literatura askotarikotik bildutako datuek espero diren emaitzak ulertzen laguntzea espero da.

Hipotesi nagusia betetzea espero dugu; hau da, EAren diagnostiko batek sortutako estres-mailen eta gaixotasun horren bilakaeraren arteko erlazio positiboa aurkitzea espero da. Hipotesi zehatzei dagokienez, guztiak betetzea espero da;

- Estres biologikoaren biomarkatzaile laginen (kortisol eta alfa-amilasa), estresaren (PSS) eta distresaren (IES-R) test psikologikoen emaitzen eta gaixotasunaren bilakaeraren (EDSS eta MSIS-29) artean, korrelazio positiboa aurkitzea espero da; hau da, parte-hartzaileek proba horien emaitzetan zenbat eta puntuazio altuagoa atera, orduan eta gaixotasunaren bilakaera okerragoa izango dute.

- Saiheste aurre-egite estrategia duten pertsonen gaixotasunaren garapen txarrena izatea espero da. Aldiz, egokitzapen aurre-egite estrategia duten pertsonen, beste taldearekin alderatuz gero, garapen hobea izatea espero da. Azterketa honetarako ikertutako bibliografian oinarrituta, espero dugu hipotesi hau betetzea; izan ere, azterketa asko daude aurre egite moten inguruan, eta horiek gaixotasunean nola eragiten duten.

Mugei dagokienez, gure muga nagusia laginaren inklusio-irizpideak izan dira. Lagina oso txikia eta zehatza da, EA oso gaixotasun konplexua baita. Parte-hartzaileen ezaugarriek gure emaitzetan eraginik izan ez zezaten, ahalik eta lagin antzekoena egiten saiatu gara. Erabaki horren ondorioz, hiru urteko erreklutatze-fasea proposatzen da, eta gure diseinua bost urte eta erdiko luzaroko-diseinua izango da. Beraz, laginaren zehaztasuna eta azterketaren iraupena muga bat izan daitezke. Adostutako parte-hartzaileen mugara iristen ez bagara, inklusio-irizpideak zabaltzea pentsatuko litzateke; adibidez, bi sexuetakoa edo Euskal Herriko osasun-zerbitzu pribatuetako parte-hartzaileak onartuz.

Alde batetik, gure ikerketa aurrera atera dadin, profesional desberdinen arteko lan multidiziplinar bat proposatzen dugu. Jakin badakigu proiektuko kideen arteko koordinazio hori lortzea oso lan zaila eta neketsua izan daitekeela, eta kasu batzuetan muga gisa ikusten dugu. Dena den, talde ezberdinen artean aurretik elkarlanean ibili izanak hau gaindituko



duela espero dugu eta jakin badakigu koordinazio lana oso garrantzitsua izango dela horretarako.

Bestalde, gaixotasunaren garapena neurtzeko aldagai nagusia, EDSS, epe luzerako (10-20 urte) proba fidagarria da, baina epe laburrean emaitzak nahiko kontraesankorrak dira. Hori kontuan hartuta, beste proba bat gehitu dugu, MSIS-29, gaixotasunaren garapena beste modu batean neurtzeko. Baina argi dago gaixotasunaren bilakaera modu esanguratsuan neurtzea arazo bat ere izan dela.

EMAITZEN HEDAPENA

